Kaliforniako euskaldunak

Noticias de California (Pamiela) liburuaren aurkezpena egin zuten Asun Garikano egileak eta Koro Navarro itzultzaileak joan den hilean.

Egile horrek, duela urte batzuk *Kaliforniakoak (1533-1848)* izeneko liburua plazaratu zuen. Obra interesgarri hartan AEBetako herrialde horretan euskaldunek izan duten presentziaz idatzi zuen Asun Garikanok. Bertako herrialdeek harrapaturik baitaukate egilea, izan ere, lehenago ere *Far Westeko Euskal Herria* izenekoa izkiriatu zuen. Bernardo Atxagak ere idatzita du Nevadako egunak izeneko obra, eta antza denez, familia osoari nolabaiteko eragina sortu dion espazio hura da interesgune. Edo bertako historia, zeren eta han euskaldunek historia zati bat idatzi baitzuten. Eta lan honekin (orain gaztelaniaz atera du) hala demostratu nahi izan du, bertan euskaldun askoren itzala fosilizaturik gelditu da. Izen asko daude bertan euskal jatorria dutenak, baina pertsonaia askoren testigantzak hantxe daude oraindik: Juan de Ugarte, Juan Bautista Anza, José Joaquín Arrillaga, Diego de Borica, Pablo Vicente Solá edo Pablo José de Mugártegui.